



Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo

AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, PARTE-HARTZE INSTITUZIONALARI ETA ELKARRIZKETA SOZIALARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONESTEKO.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2025eko xx(a)ren xx(e)ko Aginduen bidez, parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera eman zaio.

Arau-ekimen honen xedea lege-esparru komun bat ezartzea da, Euskadin ordezkari handiena duten antolakunde sindikalek eta enpresaburu antolakundeek euskal sektore publikoan parte har dezaten, bai eta Elkarrizketa Sozialerako Mahaiari lege-estaldura ematea ere, hiru alderdiko ituntze-organo iraunkor gisa. Helburua da lehendik dagoen errealitate instituzional bat antolatzea, segurtasun juridikoa indartzea eta elkarrizketa sozialerako eta parte-hartze instituzionalerako eredu egonkor bat finkatzea politika publiko sozioekonomiko eta laboraletan.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikulua dioenez, *“xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik”*.

Aipatutakoa kontuan hartuta, prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuarekin bat etorritako agindu-proiektuaren testua idatzi ondoren, bidezko diren izapideak egin baino lehen onartzen da. Hori dela eta,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.– Parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko lege-aurreproiektuari alde aurreko onarpena ematea.

BIGARRENA.– Alde aurreko onarpena emateko Agindu hau, arau-aurreproiektuaren testuarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA.– Araua egiteko prozedurarekin jarraitzeko xedatzea, eta beharrezkoak diren instrukzio-egintzak egin daitezela agintzea, bat etorritako prozedura hasteko 2026ko ekainaren 18ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean adierazitako premisekin.





Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Miguel Torres Lorenzo

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguako sailburua

AGINDUAREN ERASKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PARTAIDETZA INSTITUZIONALAREN ETA ELKARRIZKETA SOZIALAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN TESTU ARTIKULATUAREN ZIRRIBORROA

ZIOEN ADIERAZPENA

Gizarte demokratikoek XX. mendean izan duten aurrerapen handienetako bat izan da, haien ezaugarri adierazgarri bihurtzeraino, elkarrizketa sozialaren bidez gai publikoei buruzko erabakiak hartzeko orduan herritarren partaidetza bermatzeko bideak ezartzea. Testuinguru horretan, bai Europar Batasunak eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak, bai Espainiako Konstituzioak eta EAEko Autonomia Estatutuak berme hori jasotzen dute, eta parte hartzeko bide horiek babesten dituzte. Euskadin, gainera, botere publikoek eta gizarte-eragileek itunak egiteko berezko ibilbide instituzionala dute egina.

Nazioarteari dagokionez, LANEren 1976ko ekainaren 21eko hiru alderdiko kontsultei buruzko 144. Hitzarmenak enplegatzaileak eta langileak ordezkatzeko dituzten erakundeak zer diren jasotzen du, eta xedatzen du estatuak praktikan jarri behar dituztela gobernu-, enplegatzaile- eta langile-ordezkariei arteko kontsulta eraginkorrak ziurtatuko dituzten prozedurak. Bestalde, LANEren 1978ko ekainaren 26ko 150. Hitzarmenak lan-munduan dauden gizarte-erakundeen garrantzia erakusten du. Azken hitzarmen horren arabera, prozedura aproposak ezarri behar dira agintaritzaren publikoen eta ordezkariaren handieneko enplegatzaile- eta langile-erakundeen arteko kontsulta, lankidetzaren eta negoziazioaren bermatzeko.

Europar Batasunaren esparruan, elkarrizketa soziala gobernantza ekonomiko eta sozialerako funtsezko tresna dela onar dadin babesten aritu dira hainbat ekimen. Besteak beste, hor dugu Europako Elkarrizketa Sozialari buruzko Batzordearen 2004ko abuztuaren 12ko Komunikazioa: "Aldaketarako lankidetzaren Europa hedatu batean: Europako elkarrizketa sozialaren ekarpena indartzea" izenekoa, zeinak agerian uzten baitu elkarrizketa horrek arlo ekonomikoan eta sozialean zenbateko garrantzia duen.

Berrikiago, Elkarriketa Sozialaren aldeko Europako Ituna, Europako Batzordeak eta Europako gizarte-solaskideek (enplegatzailen erakundeek eta sindikatuek) 2025eko martxoan sinatua, zeina konpromiso berritua baita gizarte-eragileek Europako politiken lanketan duten partaidetza egituratua indartzeko. Itunak bultzada bat eman nahi dio elkarriketa sozialari, Europako gizarte-ereduaren elementu nagusi izan dadin, eta aitortzen dio funtsezkoa dela lan-baldintzak, lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa hobetzeko. Lan-munduko ordezkariekin kontsultak egitea indartzeko, legegintza-prozesuetan alde aurretik parte har dezaten sustatzeko eta negoziatutako erabakiak legegintza-tresna gisa erabil daitezen sustatzeko neurriak jasotzen dira. Horrek guztiak indartu egiten du Euskadin partaidetza instituzionala eta elkarriketa soziala garatzeko esparru propio eta egonkor bat finkatzeko aukera edukitzea.

Itunaren ekintza zehatzen artean daude Elkarriketa Sozialerako Europako mandatari bat sortzea, kalitatezko enpleguetarako ibilbide orri bat batera garatzea eta estatu kideetan elkarriketa sozialaren inplementazioa monitorizatzeko eta ebaluatzeko mekanismoak sortzea. Halaber, kontsulta-eremua EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 153. artikuluko eskumen tradizionaletatik haratago hedatzea aurreikusten da, lankidetzazabalagoa eta estrategikoagoa ahalbidetzen baitu. Itunak gobernantza ekonomiko eta sozial inklusiboago baterantz aurrerapen esanguratsua egiteko balioko du, eta enplegatzailen eta langileen ahotsei onarpen instituzional handiagoa emango zaie Europa mailan.

Testuinguru horretan, administrazio publikoen erabakiak hartzeko prozesuetan sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek parte hartzeko sistema aberats eta baliotsu bat finkatu da. Zehazki, era askotako eremuetan orokortu da instituzioetan parte hartzeko mekanismo deitu izan dena, hau da, entitate publiko askotan aholkularitza-organoak ezarri dira instituzio publiko horiek beren gain hartutako eskumenak programatzeko, gauzatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko. Kontsulta-organo horietan, ordezkaritza handieneko sindikatuen eta enpresaburuen elkarten presentzia nabarmena izaten ari da, hitza eta botoa dutela. Ituntzearen eta erantzukidetasun instituzionalaren adierazpena da hori, zeina EAEn ondo finkatuta baitago.

II

Konstituzioaren esparruan, sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek zeregin garrantzitsua dute partaidetza instituzionalean. Hala ondorioztatzen da Atariko Tituluaren 7. artikulutik, erakunde horiei berezkoak dituzten interes ekonomiko eta sozialak defendatzeko eta sustatzeko zeregin nabarmena esleitzen baitie, eta, hala, gure sistema politikoaren protagonista bihurtzen dira, alderdi politikoei esleituta datorkienarekin batera; horrenbestez, oinarritzko solaskide bihurtzen dira itun sozialaren prozesuetan eta, oro har, politika publikoak diseinatzeko eta kudeatzeko prozesuetan.

Era berean, autonomia kolektiboaren printzipioak, eta, bereziki, Konstituzioaren 28. artikulua erakunde sindikalei askatasun sindikalerako eskubidea aitortzeak, eta, horrekin batera, 22. artikuluan aitortutako enpresa-asoziazionismoarako eskubideak, biak ala biak oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen esparruan, erakunde horien antolamendu-eta jardura-independentiaren babes zabala dute oinarri, administrazio publikoen inolako esku-hartzerik gabe. Dena den, aurretik adierazitako sindikatuen eta enpresaburuen elkarleen autonomia guztiz bateragarria eta uztargarria da gure lan-harremanen sisteman eta, oro har, gure sistema politikoan sindikatu eta enpresaburuen elkarte horiei esleitutako funtzioak sustatzeko eta bultzatzeko esku-hartze publikoarekin. Gure ereduak berak ere agintzen du administrazio publikoen sustapen- eta erantzukizun-lan hori. Horixe da, hain zuzen ere, 9.2 artikulua konstituzio-aginduan ageri den logika; izan ere, ezartzen du botere publikoei dagokiela norbanakoaren eta hura integratzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzea, eta arreta berezia jartzea askatasun eta berdintasun horiek bete-betekoak izatea eragozten edo zailtzen duten oztopoak kentzeari eta herritar guztiek bizitza politikoan parte har dezaten ahalbidetzeari.

Gainera, partaidetza hori antolatzeko bideak jurisprudentzia konstituzional zabal batean daude azalduta; irizpide objektibo arrazoizkoetan eta lortu nahi den helbururako egokietan oinarritutako baldintzatutako dira hartzen diren jarraibideak, kasu bakoitzean parte-hartzea zein erakunderi dagokion zehaztu ahal izateko, eta, horretarako, “ordezkaritza handiena” kontzeptuak zer lege-muga ezartzen duen balioetsi behar da.

Alde horretatik, kontuan hartu behar dira “ordezkaritza handienari” buruz lege ezarritako irizpideak, gizarte-zuzenbideko oinarritzko arauetan jasota daudenak, nahiz Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 6.2 eta 7.1 artikulua, sindikatuei dagokienez, eta Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren seigarren xedapen gehigarria, enpresaburuen erakundeei dagokienez, (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori).

“Ordezkaritza handieneko” kalifikazioak eginkizun nabarmena ematen die administrazio publikoekiko elkarriketaren esparruan; halaxe ezartzen du, sindikatuentzat, abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 6.3.a) artikulua eta, enpresaburuen elkarteentzat, Sindikatuetan Elkartzeko Eskubideari buruzko apirilaren 1eko 19/1977 Legeak, Langileen Estatutuaren seigarren xedapen gehigarriari dagokionez.

Era berean, kontuan hartu behar da Konstituzio Auzitegiak gaiari buruz ezarritako doktrina; besteak beste, martxoaren 31ko 39/1986 KAEn, erakunde sindikalei buruzkoa, eta apirilaren 8ko 52/1992 KAEn, enpresaburuen erakundeen ordezkagarritasunari buruzkoa.

III

EAEko berezko instituzio-esparruan, eta haren autogobernuaren adierazpen gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 9. artikulua ezartzen du botere publikoek neurriak hartuko dituztela norbanakoaren eta hura integratuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna efektiboak eta errealak izan daitezen baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko, eta herritar guztiek EAEko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan parte har dezaten ahalbidetuko dutela.

Estatutu-agindu horren babesean, Euskadik ibilbide sendoa egin du, bai sindikatuek eta enpresaburuen erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza ekonomikoan, sozialean, politikoan eta kulturean presentzia indartsua izan dezaten, bai esparru guztietan aberastasuna lortzeko betidanik erakutsi duen protagonismoa indartzen. Nahikoa da kontuan hartzea zenbateraino barneratuta dauden gizarte-sarean, nolako negoziazio kolektibo indartsua garatzen den lurralde, sektore eta enpresa guztietan eta politika publiko autonomikoen garapenean horietako bakoitza beren interesak defendatzen etengabe nola aritzen den.

Printzipio hori garatzeko, gizarte-eragileak euskal sektore publikoaren organismo, ente eta espazio instituzional desberdinetan sartzen joan dira progresiboki, erakunde horiek sortu ahala, eta, formula eta konfigurazio askotarikoen bidez, haien kudeaketa-, kontsulta- edo aholkularitza-organoen parte izatera iritsi dira. Ituntze-eredu horrek sobera agerian utzi du eraginkorra dela Euskadiren interes sozial eta ekonomikoak garatzeko eta herritarren ongizate orokorrerako, partaide diren erakundeen erantzukizunari eta leialtasun instituzionalari esker.

Nolanahi ere, prozesu hori denboran zehar modu sakabanatuan eta etenekin gauzatu da, behar den koherentzia emango dion esparru orokorrik gabe. Ondorioz, oso egoera desberdinak sortu dira, eta komeni da kontzeptualki eta legalki bereiztea eta antolatzea.

Horrenbestez, lege-esparru komun bat eman behar zaio eremu horri, partaidetza instituzionaleko eta ituntze sozialeko euskal eredu bat modu egonkorrean finkatzeko aukera emango duena, oinarritzat hartuta erantzukidetasuna, ordezkagarritasuna, egonkortasun instituzionala, gizarte-kohesioa eta politika publikoen inguruko akordio zabalak bilatzea. Horretarako, legeak gutxieneko oinarri komun batzuk ezartzen ditu eskubide, betebeharrak, legitimazio, prozedurari eta sustapen eta laguntza ekonomikoko mekanismoei dagokienez, betiere instituzioetan parte hartzeko organo edo tresna bakoitzaren berezitasunak errespetatuz.

IV

Lege honen bigarren helburu handia da beste errealitate bat integratzea, normalizatzea eta finkatzea, honekin lotuta egonagatik ere, ezaugarri espezifikoak eta bereizgarriak baititu. Hiru alderdiko elkarrizketa sozialaz ari gara, EAEko arau juridikoen eta politika publikoen edukia progresiboki ituntzeko tresna gisa.

Izan ere, ituntzea urrats kualitatibo bat da partaidetza instituzional hutsaren aldean: gobernuaren ekintza bideratzen duten arau-erabakien eta jarraibide politikoen betearazpenean eta kudeaketan eragiteaz gain, horretarako eskumena duten administrazio-egituren bidez, aktiboki esku hartu nahi baitu batzuen zein besteen sortze- eta definizio-prozesuetan.

Ordezkaritza handieneko enpresaburuen erakundeei eta sindikatuiei dagozkien eginkizunen barruan, erakunde horiek lan proaktiboa egin dezakete, eta jorratu beharreko gaiak edo garatu beharreko ekintzak proposatu. Nolanahi ere, ituntzeak ez du inola ere esan nahi eskumen publikoen egikaritzari kalterik egiten zaionik, eskumenok ukaezinak baitira, eta, orobat, ituntzeak ez du ekintza politikoa baldintzatzen, zeina ezin baita inola ere gizarte-eragileekin aldeztu aurretik akordio bat izatearen mende geratu. Helburu erabat demokratiko baten gauzatze formala baino ez da, gobernuaren ekintzaren edukia ahal den neurrian adosteko hark zuzenean edo zeharka eragingo dien pertsonen interesak ordezkatzen dituzten eragileekin. Ikuspegi horretatik, ituntzea, zeinak berez izaera politikoa eta zeharkako irismena baitu, ordezkaritza handieneko gizarte-eragileekiko elkarrizketa etengabea eta instituzionalizatua soilik oinarritu daiteke.

Hiru alderdiko elkarrizketa sozialaren esperientzia, EAEn, oraintsuko errealitate bat da, prozesu bizi eta dinamikoa, oso emankorra mahai orokorraren eta hura sortu zenetik eratutako lantaldeen bidez egindako lanari dagokionez, eta arrakastatsua ere bai emaitzei dagokienez. Babes juridikoa, gaur egun, arau honek ematen dio: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzeko urtarilaren 15eko 3/2019 Dekretuak.

Igarotako denborak eta, batez ere, orain arte lortutako emaitzek argi eta garbi justifikatzen dute hiruko elkarrizketa horri erakunde-egonkortasuna ematea komeni dela, eduki eta irismen orokorreko lege baten bidez. Lege horrek, lehen ere esan denez baina beste behin errepikatzea ere komeni denez, gizarte-eragileek esparru publikoan esku hartzeko eta parte hartzeko etorkizunean bete beharko duten esparru juridiko-politikoaren oinarriak ezarri nahi ditu.

Arau horrek, a priori, ez du asmorik izan behar gaur egun hiruko elkarrizketa sozialari eusten dion eta elkarrizketa hori bideratzen duen mahaiaren euskarri den lege-esparruaren alderdi materialak edo substantiboak aldatzeko. 2019ko aipatutako dekretutik abiatuta diseinatutako ereduak nahiko ondo funtzionatu du, eta, beraz, bere horretan eutsi behar zaio, funtsezko alderdiei dagokienez behintzat.

Legeak hiru alderdiko elkarrizketaren esparruan lortu nahi duena da babes juridikoa ematen dion arauaren maila formala areagotzea, eta argi berrestea protagonisten borondate komuna: hiruko elkarrizketa EAEko erakunde-sarean behin betiko sartuta geratzea, EAEko gobernantza publikoaren kalitate demokratikoaren eta gardentasunaren ezaugarri edo ikur gisa. Bestalde, legearen helburua da egitura bati euskarri eraginkorra emateko behar diren bitarteko eta baliabideez hornitzea hiruko alderdia, denboran irauteko borondate eztabaidea ezina ekarriko baitio lege honek, behin eta berriz adierazi den bezala.

V

Legeak hiru kapitulu ditu: hamahiru artikulua, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor eta bi azken xedapen. I. kapituluak erakundearen parte-hartzearen xedapen orokorrak eta araubide erkidea jasotzen ditu; II. kapituluak Gizarte Elkarrizketarako Mahaia arautzen du; eta III. kapituluak mahai hori sustatzeko eta finantzatzeko oinarriak ezartzen ditu. Erregulazioak gutxienezko esparru komun bat finkatzen du bere eremuko organoentzat, horietako bakoitzaren izaera, eskumenak eta funtzionamendu espezifikoa zehazten dituen sektoreko araudia ordeztu gabe.

I. kapituluak arauaren xedea eta helburua mugatzen ditu, erakundearen parte-hartzea, elkarrizketa soziala eta gizarte-ituna definitzen ditu, eta aplikazio-eremua zehazten du. Erregulazioa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde eta erakunde instrumentaletan proiektatzen da, baldin eta laneko, gizarteko edo garrantzi sozioekonomikoko eskumenak badituzte. Kanpoan geratzen dira ordezkariak eta negoziazio kolektiboaren eremuak eta araudi propioari lotutako gainerako ordezkariak moduak. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseilua kanpoan uzten dira, beren erregimen propioari eusten baitiote. Mugaketa horrek partaidetza-sistemen autonomia babesten du, eta saihestu egiten du araubide orokorrak jarrera instituzional berezia duten organoak aldatzea.

Kapitulu berean, legitimazioa duten sindikatuak eta enpresa-erakundeak identifikatzen dira, ordezkariak handieneko legezko kontzeptura joz, eta parte hartzeko irizpideak ezartzen dira. Baldintza horrek zehazten du ordezkariak instituzional orokorra izateko aukera. Langileen ordezkariaren osaketa alderdi sindikalen eta enpresariaren arteko parekotasunak eta horietako bakoitzaren barruko lanpostuen banaketa proportzionalak arautzen dute. Legeak, beraz, ez du baztertzen interes sektorialak ordezkatzeko dituzten beste erakunde edo instituzio batzuk egotea, berariazko araudiak hala aurreikusten duenean. Halaber, ordezkariak proposatu eta izendatzea, organoak berritzea eta agintaldian zehar gerta daitezkeen ordezkariak arautzen ditu.

Legeak, halaber, erakundeen parte-hartzearen eduki orokorra zehazten du: kide anitzeko organoetan egotea, prestakuntza-lanak, proposamenak egitea, planen eta jardueren jarraipena eta ebaluazioa, eta lortutako akordioen zabalkundea. Arauketa erkide horrek ez die ahal publikorik ematen parte hartzen duten erakundeei, eta ez ditu haien proposamenak lotesle bihurtzen, salbu eta organoa arautzen duen araudiak besterik xedatzen duenean. Araubide hori osatzeko, beharrezkoa da erakunde-eginkizuna betetzeko behar diren informazio- eta partaidetza-eskubideak izatea, eta ordezkariari eskatzen zaizkien laguntza-, dokumentu-zaintza- eta konfidentzialtasun-betebeharrak betetzea.

II. kapituluak, erakundeen partaidetzarako organo espezifiko gisa, Elkarriketa Sozialerako Mahaia finkatzen du, Eusko Jaurlaritza eta ordezkariak handieneko sindikatu- eta enpresa-erakundeak elkartzeko erakunde-organok gisa. Honako hauek arautzen ditu: hirukoa eta paritarioa izatea; osaera; lehendakaritza eta idazkaritza; erabakiak hartzeko eta helarazteko araubidea; eta elkarriketa sozialeko gaiak definitzeko, ekimenak eta planak ezagutzeko, proposamenak egiteko, azterlanak bultzatzeko eta akordioen jarraipena eta ebaluazioa egiteko dagozkion eskumenak. Bere baitan lortutako hitzarmenak alderdien arteko konpromiso politiko eta instituzionala adierazten du, baina ez ditu Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarraren edo administrazio-organok eskudunen araugintzako, betearazpeneko edo aurrekontuko eskumenak baztertzen, eta ez du hori egikaritzea eragozten akordiorik lortzen ez denean.

III. kapituluak erakundeen parte-hartzea eta elkarriketa soziala sustatzea eta finantzatzea arautzen du. Ordezkarien banakako presentzia doakoa da, eta ez du berez ordainsarietarako edo kalte-ordainetarako eskubiderik sortzen. Finantzaketa erakundeentzat da, eta legean jasotako erakunde-jarduerari erantzuteko dirulaguntza izendunen bidez egituratzen da. Baliabideak ordezkagarritasunaren arabera banatzen dira, eta laguntza egiaztatuaren bidez eta lau urteko hitzarmen-programan ezarritako irizpideen arabera aplikatzen dira. Finantzaketaren eta parte-hartze eraginkorraren arteko loturak ez du zehapen-izaerarik; aitzitik, baliabide publikoak benetan egindako jarduerara bideratuko direla ziurtatu nahi du. Xedapen gehigarriek ordezkariak handieneko antolakundeentzako entzunaldia eta sektore-interesak parte-hartzea zaintzen dute; xedapen iragankorrek lehendik dauden organoak egokitzea eta Gizarte Elkarriketarako Mahaiaren araubidearen behin-behineko jarraipena agintzen dute; eta azken xedapenak erregelamendu-garapena gaitzen dute eta legea indarrean sartzea ezartzen dute.

I. KAPITULUA:

Xedapen orokorrak eta partaidetza instituzionalaren edukia, eta subjektu parte-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak

1. artikulua. Xedea

1. Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeek langileen eta enpresaburuen interes ekonomiko eta sozialei eragin eta lan-, gizarte- eta ekonomia-arloko eskumenak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate eta ente instrumentalen organoetan parte hartzeko esparrua arautzea, batzorde, kontseilu edo kide anitzeko bestelako partaidetza-organoen bidez.
2. Bai eta Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzea ere, ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak hiru aldeko itunak egiteko, topagune izateko eta instituzioetan parte hartzeko organo iraunkorra izan dadin.

2. artikulua. Helburua

1. Lege honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ituntze soziala sustatzea, ezinbesteko faktorea baita kohesio sozialerako, aurrerapen ekonomikoa lortzeko eta euskal sistema sozioekonomikoaren lehiakortasuna hobetzeko.
2. Instituzioetan parte hartzea eta etengabeko elkarrizketa soziala Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeek duten eskubide gisa eratu dira, artikulua honetako lehenengo puntuan jasota dagoen moduan.

3. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Lege honetako arauak, zeinak partaidetza instituzionala arautzen baitute, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate eta ente instrumental guztiei aplikatuko zaizkie, beren araudian jasotakoarekin bat, baldin eta lan- edo gizarte-arloko eskumenak badituzte.
2. Partaidetza instituzionala aplikatzekoa izango da, halaber, administrazioek beren interesen eta garrantzi sozioekonomikoaren arabera erabakitzen dituzten beste gai batzuetan ere.

3. Lege hau ez zaie aplikatuko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen diren funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen partaidetzako, ordezkartzako eta negoziazio kolektiboko organoei, berariazko erregulazioa baitute organo horiek.
4. Era berean, ez zaie aplikatuko sektore pribatuko ordezkartza eta negoziazio kolektiboko organoei –izan ere, sektore pribatua Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren III. tituluaren xedatutakoak arautzen du–, ez eta, oro har, ordezkartza handieneko sindikatuak eta enpresaburuen erakundeak izan ditzaketen edo sor dezaketen bestelako negoziazio-gune guztiei edo elkarren artean sortzen dituztenei ere.
5. Lege honen aplikazio-eremutik salbuetsita geratzen dira halaber (beren eremu propioari eutsiko diote):
 - a) EAEko Ekonomia eta Gizarte Kontseilua.
 - b) Euskadiko Lan Harremanen Kontseilua.

4. artikulua. Definizioak

1. Lege honetan jasotakoaren ondorioetarako, partaidetza instituzionala da langileei eta enpresei dagozkien interes orokor komunak eta sektoreartekoak defendatzeko eta sustatzeko zereginak eta jarduerak egitea.
2. Lege honen ondorioetarako, elkarrizketa soziala eta ituntze soziala dira modu egonkorrean eta arau honek zehazten dituen esparru guztietan egiten diren elkarrekintza, negoziazio eta elkarrizketak, betiere administrazioen eta ordezkartza handieneko sindikatuen eta enpresaburuen erakundeen artean adostasunak lor daitezen interes orokorreko gizarte- eta ekonomia-ekintzaren eremuan; batez ere eremu hauetan: enplegua eta enpleguaren kalitatea eta duintasuna hobetzea, enpresa eta industria dinamizatzea, hazkunde ekonomiko jasangarria eta inklusiboa eta ongizate-estatuaren babesa.

5. artikulua. Ordezkaritza-irizpideak

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkartza handieneko sindikatuen eta enpresaburuen erakundeak dira, sindikatuak dagokienez, Askatasun Sindikalaren abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 6.2 eta 7.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera izaera hori dutenak, eta, enpresa erakundeei dagokienez berriz, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izaera hori dutenak (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Langileen

Estatutuaren Legearen testu bategina), eta, orobat, agindu horiek garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak unean-unean esleitura dituen eskumenen esparruan eman daitezkeen arauetan izaera hori jasoko dutenak.

6. artikulua. Partaidetza-irizpideak

1. Lege honen 3. artikuluan zehaztutako organoetan parte hartzen duten gainerako entitate eta erakundeak gorabehera –sorrera-legearen arabera zehaztuko da zein diren–, sindikatuen eta enpresaburuen erakundeen ordezkari-kopurua zehazteko, bi erakunde mota horien arteko (sindikala eta enpresariala) parekotasun-printzipioa aplikatuko da.
2. Bi ordezkaritzetako bakoitzaren barruan, sindikala eta enpresariala, kideen kopuruaren banaketa proportzionaltasun-printzipioaren arabera egingo da, legekotzat jotako erakunde bakoitzak duen ordezkagarritasun-ehunekoaren arabera.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izendatuko eta kargugabetuko ditu lege honetan jasotako sindikatuen eta enpresaburuen erakundeen ordezkariak, erakunde horien zuzendaritza-organismo eskudunek egindako proposamena kontuan hartuta. Proposamena egiterakoan, emakumeen eta gizonen arteko parekotasun-arauak errespetatu behar dira.
4. Partaidetza instituzionaleko dagokion organoa integratuko den entitateak, zeina izendapena egiteaz arduratuko baita, erakunde sindikal bakoitzaren ordezkagarritasun-ehunekoari buruzko datuak eskatuko dizkio erregistro-bulego publikoari, eta banatuko ditu postuak erakunde sindikalen artean lehen adierazitako proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartuta. Ondorio horietarako, partaidetzazko legitimazioa eta ordezkaritza-ehuneko zehatza zehazteko, partaidetza instituzionaleko organoko kideen hasierako izendapena edo berritzea egin den unea hartuko da kontuan.
5. Partaidetza instituzionaleko organo bakoitzaren araudian aurreikuspen espezifikorik ez badago, lau urtean behin berrituko da organo hori, hasierako eraketatik kontatzen hasita. Dena dela, sindikatuak eta enpresaburuen erakundeek kide edo kideen ordezkari izateko izendatu dituzten pertsonak alda ditzakete. Kasu horretan, ordezkariak datorrenari geratzen zaion denboran jarraituko du karguan izendatu berriak, aurrekoaren lau urteko epea amaitu arte.
6. Autonomia-erkidegoko administrazioak, erakunde bakoitzari dagokion ordezkari-kopurua finkatu ondoren, ordezkariak proposatzeko eskatuko die. Aurreikuspen espezifikorik ez badago, gehienez ere hilabeteko epean erantzun beharko zaio erakundeei egindako errekerimendu horri. Horretarako legitimatuta dauden

sindikatuetakako edo enpresaburuen erakundeetako batzuek ez badute egiten artikuluko honetako hirugarren apartatuan jasotako ordezkarien proposamena, hala jakinarazi beharko zaie proposamena egin duten ordezkariak bereko gainerako erakundeei, izendatu gabeko beste horrenbeste ordezkari izenda ditzaten ordezkariak-ehunekoaren arabera, hutsik dauden postuak betetzeko, artikuluko honetako lehenengo apartatuan aurreikusitako parekotasun-printzipioa betetze aldera.

7. Aholkularitza- eta partaidetza-organoetan eta mahai eta foro espezifikoetan aztertutako gaiak dagokienez, sindikatuen eta enpresaburuen erakundeen ordezkariak erakunde horien iritzia eta proposamenak helaraziko dituzte.

7. artikulua. Partaidetza instituzionalaren eduki orokorra

Partaidetza instituzionala honela burutuko da:

- a. Ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeei ordezkariak izango dute partaidetzako, kontsultako edo aholkularitzako kontseilu, batzorde, zuzendaritzako kide anitzeko organo edo antzekoetan, bai eta negoziazio edo ituntze sozioekonomikorako edo gizarte ongizatearekin erlazionatutako partaidetzako organo eta erakundeetan edo mahai eta foro espezifikoetan, entitate edo enpresa publiko bakoitza sortzeko edo erregulatze araudian zehazten diren aurreikuspenekin bat etorriz, bai eta lege honetan aurreikusten diren organoetan ere.
- b. Organoetan, batzordeetan eta gainerako partaidetza-eremuetan jorratuko diren gaiak aztertu eta aurretiazko lanak egingo dituzte.
- c. Lido estrategikoak, txostenak, planak, irizpideak, gidalerroak, legegintza-ekimenak eta garapen ekonomiko eta sozialerako beharrezkotzat jotzen diren jardura guztiak proposatu, horien jarraipena egin, baloratu eta ebaluatuko dituzte, bai enpresaburuen erakundeei eta sindikatuei beren ekimenez, bai haiek parte diren kide anitzeko organoak hala eskatzen duenean, dagokion erabakia hartu ondoren.
- d. Ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeei eta kasu bakoitzean dagokion administrazio-eremuak elkarrekin sinatutako akordioak eta itunen jarraipena eta hedapena egingo dute.
- e. Sindikatuen eta enpresaburuen erakundeen ekimenez antolatu eta egindako jardunaldi, mintegi, hitzaldi, foro eta garapen ekonomiko eta soziala sustatzea helburu duten gainerako ekitaldi guztiak antolatu eta haietan parte hartuko dute, baita partaidetza instituzionaleko kide anitzeko organoak

proposatu eta antolatutako aipatutako ekintza horien antolaketan eta garapenean ere, dagokion erabakia hartu ondoren.

- f. Arauei eta, bereziki, enpresentzat eta langileentzat interesgarriak diren laguntza-programei buruzko informazioa emango dute.
- g. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko instrumentalean eta sozietate horietako bakoitzean horretarako sortzen diren jarraipen-batzordeetan parte hartuko dute.
- h. Ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeek berezkoa duten eta partaidetza instituzionalaren eta elkarriketa sozialaren eremuan sartuta dauden antzeko edukiko beste edozein eginkizun izango dituzte.

8. artikulua. Partaidetza instituzionala baliatzeko eskubideak eta betebeharrak

- 1. Ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeek jardueren erantzukidetasunaren, negoziatzeko fede onaren eta bidezko konfiantzaren printzipioei jarraituz egin behar dituzte lege honetan jasotako ordezkaritza-lanak.
- 2. Ordezkaritza handieneko sindikatuek eta enpresaburuen erakundeek, partaidetza instituzionaleko eginkizunak betetzeko, eta parte hartzen duten entitate, organo edo enpresa publiko bakoitzaren araudi espezifikoaren arabera, eskubide hauek dituzte:
 - a. Beren eskumeneko gaiei dagokienez, aldez aurretik ezagutzea lege-aurreproiektuak edo lege-arauak garatzeko erregelamendu-arauen proiektuak.
 - b. Beren eskumeneko gaiei buruz garatutako plan, programa eta jardueri buruzko informazioa jasotzea.
 - c. Beren eskumeneko gaiekin zerikusia duten irizpideak, gidalerroak eta jarduera-ildo nagusiak egiten parte hartzea.
 - d. Parte hartzen duten organoetako funtzionamendu-arauek ezartzen duten beste edozein eskubide.
- 3. Dagokien organoetan partaidetza instituzionaleko eta elkarriketa sozialeko eginkizunak betetzen dituzten pertsonak betebeharrak hauek dituzte, beren zereginak betetzean:

- a. Dagokion sindikatuak edo enpresaburuen erakundeak legez onartuta duen partaidetza instituzionaleko organoen bileretara joatea.
- b. Partaidetza instituzionalerako eskubidea baliatzeagatik eskura daitezkeen dokumentuak zaintzea.
- c. Partaidetza-organoetan sortutako eztabaidei buruz behar den konfidentzialtasuna gordetzea, eta organo horien bileretan lortutako informazioa ez erabiltzea baldin eta erreserbatutzat jo bada eztabaidarako, negoziatziorako eta erabakiak hartzeko ez diren beste helburu batzuetarako.
- d. Parte hartzen duten organoen funtzionamendu-arauek zehazten duten beste edozein betebeharrak.

II. KAPITULUA: Elkarriketa Sozialaren Mahaia:

9. artikulua. Elkarriketa Sozialaren Mahaia:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarriketa Sozialaren Mahaia Eusko Jaurlaritza eta ordezkaritza handieneko EAEko sindikatuak eta enpresaburuen erakundeak elkarrekin biltzen dituen organo instituzional iraunkorra da, elkarriketa sozialaren adierazpena izan dadin eta elkarriketa hori sustatzeko, kohesio sozialerako eta aurrerapen ekonomikorako faktore izan dadin. Horrenbestez, elkarriketa sozialak nolako balioa eta garrantzia duen helaraziko dio gizarte osoari.
2. Iraunkorra eta parekidea izango da mahaia, eta Eusko Jaurlaritzaren eta lege honen arabera ordezkaritza handieneko sindikatuen eta enpresaburuen erakundeek ordezkariak osatuko dute.
3. Zereginak betetzeko, independentzia osoz eta ordenamendu juridikoa betez jardungo du.

10. artikulua. Elkarriketa Sozialaren Mahaiaren osaera

1. Mahaia hiru alderdikoa da, eta Jaurlaritzaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaritza handieneko sindikatuak eta enpresaburuen erakundeek hartuko dute parte, baldin eta mahaian sartzea eta modu aktiboan parte hartzea onartzen badute.
2. Mahaian, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izango dira lege hau garatzeko dekretuan zehazten diren sailak. Mahaiburua lan-arloko eskumena duen saileko titularra izango da, eta hark egingo ditu bilera-deialdiak, finkatuko du gai-zerrenda eta bideratuko ditu eztabaidak.

3. Lan-arloko eskumena duen saileko teknikari bat izango da mahaiko eta, hala badagokio, eratzen diren lantaldeetako idazkaria. Sail horretako titularrak izendatuko du, eta bileretan hitzarekin baina botorik gabe hartuko du parte, bileren akta egingo du, eta adostutako akordio eta erabakien ziurtagiriak egingo ditu.
4. Mahaiko kideak izendatzeko orduan, gaitasun, konpetentzia eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bilatuko da.

11. artikulua. Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren erabakiak hartzea eta erabakien transposizioa egitea

1. Oro har, Mahaiaren akordioak eta erabakiak aho batez hartuko dituzte mahaia osatzen duten alderdiek. Erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu daitezke edo beste edozein bide erabiliz publiko egin.
2. Elkarrizketa sozialaren esparruan, lege honetan zehaztutako moduan Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak onartutako erabakiak alderdi guztiek hartuko dituzte beren gain, eta erabaki horien transposizioa egingo da kasu bakoitzean egokien iritzitako arau-formatua eta formatu juridikoa emanaz, ordenamendu juridikoarekin bat etorrita, eta Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarraren eta administrazio-organo eskudunen berezko eskumenak ezertan eragotzi gabe.
3. Hala ere, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak erabakirik ez hartzea ez da eragozpen izango Jaurlaritzak bere eginkizunak legezkotasunez gauza ditzan, konstituzio- eta lege-eskumenen esparruan beharrezkotzat jotzen dituen erabakiak hartuta.

12. artikulua. Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren eskumenak

Eskumen hauek ditu, besteak beste:

1. Elkarrizketa sozialaren xede zer gai izango diren zehaztea.
2. Elkarrizketa sozialaren esparruko akordioak onartzea, jarraipena egitea, ebaluatzea, argitaratzea eta zabaltzea, bai eta akordio horiek garatzeko neurriak adostea ere, Administrazioako beste organo batzuen eskumenak ahaztu gabe.
3. Mahaiak elkarrizketa sozial gisa zehaztutako gaiei eragiten dieten arau-jarduketak eta Administrazioaren garrantzi bereziko beste jarduketa batzuk onartzeko eta aldatzeko proposamenak alde aurretik ezagutzea, eta proposamen horiek egiteko aukera izatea, hala nola:
 - a. Lege honen partaidetza-eremuko gairen batean eragina duten lege-aurreproiektuak edo erregelamendu betearazleen proiektuak.

- b. Lege honen partaidetzaren eremuan aipatzen diren gaietako batean eragina duten plan sektorialak.
 - c. Lege honen partaidetza-eremuan aipatutako gairen batean eskumena duten organismo autonomoen eta zuzenbide publikoko entitateen aurrekontuen aurreproiektu-proposamena.
- 4. Lege honen partaidetza-eremuan jasotako gairen batean eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateei haien lana orientatzeko irizpideak, gidalerroak eta jarraibide orokorrak proposatzea.
 - 5. Eusko Jaurlaritzari, dagokion saileko titularraren bitartez, lege honen partaidetza-eremuan aipatzen diren arloetakoren batean komenigarritzat jotzen diren lege-ekimenak onar ditzala proposatzea, betiere Jaurlaritzaren berezko eskumenak eta legegintza-ekimeneko eskumena errespetatuta.
 - 6. Eusko Jaurlaritzari, dagokion saileko titularraren bitartez, partaidetza xede duten gaietan beharrezkotzat jotzen diren jarduera zehatzak egin ditzala proposatzea.
 - 7. Interes orokorreko gaiei buruzko azterlan eta txostenak proposatu eta haietan parte hartzea, beste organo batzuen eskumenak galarazi gabe.
 - 8. Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren urteko memoria onestea.
 - 9. Batzorde espezializatuak eta negoziazio-batzordeak eratu daitezen onartzea.
 - 10. Elkarrizketa soziala garatzen laguntzen duten beste jarduketa guztiak.

III. KAPITULUA: Sustapena eta finantzaketa

13. artikulua. Finantzaketa

- 1. Gizarte-eragileen ordezkariak partaidetza eta elkarrizketa sozialeko organo instituzionaletan dohainik arituko dira, eta ez dute ordainsaririk edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango haien jarduera dela-eta.
- 2. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legeak aurrekontu-partida zehatzak jasoko ditu lege honetan araututako partaidetza instituzionala eta ordezkaritza handieneko sindikatuak eta enpresaburuen erakundeek elkarrizketa sozialerako mahaietan duten partaidetza finantzatzeko, batetik, haien eskubideak eta betebeharrak baliatzea behar bezala sustatu eta berma dadin eta, bestetik, ordezkaritza handieneko erakunde izateak ematen dizkien informazio-, aholkularitza- eta negoziazio kolektiboko eskubideak babesteko.

3. Aurrekontu-partida horiek dirulaguntza izendun gisa esleituko dira parte-hartze instituzionaleko organo bakoitza atxikita dagoen sailari dagokion atalean, eta urte anitzekoak izango dira.
4. Finantzaketa hori lege honetan aurreikusten diren jarduerari dagokie soilik, eta, beraz, ez du mugatzen beste finantzaketa-iturri batzuk egotea beste jarduera batzuk edo beste mota bateko batzuk egiteko, administrazio honetatik edo beste batzuetatik datozen funtsekin.
5. Esleitutako baliabideen banaketa aurreko urteko azken egunean sindikatu edo enpresaburuen erakunde bakoitzerako zehaztutako ordezkagarritasunaren arabera egingo da, eta dirulaguntzei buruzko araudi orokorraren arabera ordainduko dira, dirulaguntza justifikatzen denean izan ezik, zeina izendatuak izan diren partaidetza- edo ordezkaritza-organoetan parte hartu izanaren bertaratze-ziurtagirien bidez egiaztatuko baita, lau urteko programa-hitzaemenean ezarritako irizpideen arabera.

Lehen xedapen gehigarria. Araudia aldatzeko prozedura

Lege honetan aipatzen diren ordezkaritza handieneko sindikatuei eta enpresaburuen erakundeei entzun egin beharko zaie lege hau indarrean sartzen den unean indarrean dauden partaidetza instituzionaleko organoen araudia aldatzeko prozeduran.

Bigarren xedapen gehigarria. Sektore-interesak ordezkatzeko dituzten erakundeen edo instituzioen partaidetza instituzionala.

Lege honetan jasotzen den partaidetza instituzionala administrazio autonomikoaren aholkularitza- eta partaidetza-organoetan edo izaera sektorialeko entitate eta organismo publikoen zuzendaritza-, partaidetza- eta aholkularitza-organoetan dauden interes sektorialak ordezkatzeko dituzten beste erakunde edo instituzio batzuei dagokien ordezkaritza kalterik egin gabe gauzatuko da.

Lehenengo xedapen iragankorra. Araudia egokitzea eta araubide iragankorra

Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, gaur egun parte hartzen eta jardunean dauden partaidetzako hiru alderdiko organoek legearen edukira eta errekerimenduetara egokitu beharko dute. Bien bitartean, haien antolamendu- eta funtzionamendu-arauek jarraituko dute indarrean, lege honi aurka egiten ez badiete.

Bigarren xedapen iragankorra. Elkarriketa Sozialaren Mahaiari aplikatuko zaion araudia:

Egokitzen edo aldatzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarriketa Sozialaren Mahaia sortzeko urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretuaren arabera arautuko da EAEko Elkarriketa Sozialaren Mahaia.



Azken xedapenetako lehenengoa. Araugintza-garapena

Eusko Jaurlaritzak emango ditu lege hau erregelamendu bidez garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.